



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektu inklusiboak arrakasta izan dezan, ezinbestekoa da baliabide ukigarri eta ukiezinen multzo sendo bat izatea. Baliabide horiek dira gure jardueraren oinarria, eta haien bidez bermatzen dugu zerbitzuen kalitatea, irisgarritasuna eta komunitatean sortu nahi dugun eragin positiboa. Ondoren, gure proiektuak behar dituen baliabide nagusiak ondorengoak dira:

- a. Lehenik eta behin, **baliabide fisikoek** eguneroko lana antolatzeko eta erabiltzaileei arreta egokia eskaintzeko aukera ematen digute. Horien artean ondorengoak daude:
 - i. Lanerako espazioa, coworking gune edo bulego egokitu baten bidez antolatua, non taldeak bilerak, prestakuntzak eta aholkularitza saioak egin daitezkeen. Horretarako tokiko leku bat bilatu dugu; Astrabuduan dagoen ElkarCoworking gunea.
 - ii. Ekipamendu teknologikoa ere funtsezkoa da: ordenagailuak, telefono mugikorrak. Internet konexio egonkorra Coworking-ak jartzen digu. Baliabide hauen bitartez munikazioa, dokumentuen kudeaketa eta online zerbitzuak bermatuko dira.
 - iii. Prestakuntza-jardueretarako, proiektoreak, koaderniloak eta piktograma-kitak bezalako material didaktiko inklusiboak behar dira. Azkenik, atsedeen zerbitzuak eskaintzeko, mugikortasuna eta autonomia errazten duten baliabideak behar ditugu, hala nola gurpil-aulkien egokitzapenak eta laguntza tekniko espezifikoak.
 - iv. Garraio elementua. Furgoneta bat.
- b. Bigarrenik, gure proiektuak **baliabide intelektual sendoak** behar ditu, gure espezializazioaren oinarria direlako.
 - i. Prestakuntza inklusiborako edukiak eta gida erraztuak garatzea ezinbestekoa da, informazioa pertsona guztientzat ulerterraza izan dadin.
 - ii. Horrez gain, Komunikazio Sistema Handigarri eta Ordezkoetan (KSHO) oinarritutako materialak behar ditugu, komunikazio-beharrak dituzten pertsonen parte-hartzea bermatzeko.
 - iii. Irisgarritasun fisiko eta digitalerako aholku-protokoloak ere garatu behar dira, familiei eta erakundeei orientazio praktikoa emateko.
 - iv. Azkenik, webgune inklusibo eta aplikazio inklusibo baten diseinuak eta edukiak gure proiektuaren identitatearen parte dira, eta gure balioak modu argi eta eskuragarrian transmititzen dituzte.
 - v. Enpresaren logoa eta izena (Erraztu S. Koop.). Bi hauek Oficina Española de Patentes y Marcas-en (OEPM) erregistratuta egongo dira. Baina horretarako ziurtatuko dugu izena ez dagoela hartuta.
 - vi. Logotipoa adimen artifizialarekin (Copilot) eginda dago.



- c. Hirugarrenik, **giza baliabideak** dira gure proiektuaren bihotza. Lantalde espezializatu batek bermatzen du zerbitzuen kalitatea eta ikuspegi profesionala.
- i. Enpresa hiru bazkidez osatua dago. Hauek jarriko dute hasierako kapitala.
 - ii. Psikologoak, pedagogoak, KSHO adituak eta zeinu-hizkuntzako interpreteak behar ditugu, erabiltzaileen beharrei erantzun integrala emateko. Beharrianen arabera beraien zerbitzuak kontratatatuak izango lirateke.
 - iii. Horrez gain, desgaitasuna duten pertsonen esperientzia propioa duten hizlariak funtsezkoak dira tailer emozionaletan, ikuspegi erreal eta aberasgarria eskaintzen dutelako. Horretarako elkarte ezberdinekin (hala nola, ONCE edo ASPACE) jarriko ginateke harremanetan, beraien testigantzak jasotzeko.
 - iv. Marketin eta komunikazio arduradunak gure proiektuaren presentzia digitala eta soziala zainduko du. Enpresa sortu duen bazkide bat izango da, horretarako ezagutza eta ikasketa nahikoak baititu.
 - v. Kontabilitatea eta finantzen ardura bigarren bazkideak eramango du. Horretarako ezagutza eta ikasketa nahikoak baititu.
 - vi. Kanpo harremanen ardura, (elkarteekin edota ikastetxeekin harremanetan jarri) azken bazkideak eramango ditu, horretarako ezagutza eta ikasketa nahikoak baititu.
 - vii. Familia-atsedeneko zerbitzurako laguntzaileek arreta pertsonalizatua eta kalitatezkoa bermatzen dute. Hauek Erraztu S.Koop enpresak egingo duen lan poltsa batetik aterako dira, eta beharrezkoak direnean kontratatatuak izango dira.
- d. Azkenik, **finantza-baliabideek** proiektuaren jasagarritasuna bermatzen dute. Hasierako inbertsioa beharrezkoa da webgunea garatzeko, prestakuntza-materialak sortzeko eta komunikazio-kanpainak abiarazteko. Horrez gain, diru-laguntzak eta tokiko erakundeen babesa —udalak, foru aldundiak eta gizarte-ekimeneko programak— gure jarduera sendotzeko funtsezkoak izango dira. Kooperatibako bazkideen hasierako ekarpen ekonomikoek (3000€ bazkide bakoitzak) ere egonkortasuna ematen diote proiektuari, eta komunitatearen parte-hartzea indartzen dute.



ITURRIAK:

- Microsoft Copilot. (2026). Logotipo generado por inteligencia artificial para “Erraztu S.Coop.” [Imagen generada por IA].
- Elkarcoworking. <https://elkarcoworking.com/axpe>
- Oficina Española de Patentes y Marcas (OEPM). <https://www.oepm.es/es/>
- Organización Nacional de Ciegos Españoles. (s.f.). *Sitio web oficial de la ONCE.* <https://www.once.es>
- Confederación Española de Asociaciones de Atención a las Personas con Parálisis Cerebral. (s.f.). ASPACE. <http://www.aspace.org>